

ARAZO EGOERA

GIZARTEA, BASOAREN ISLA?

ARLOA: Filosofia, Etika, Psikologia, Biologia, etab.

MAILA: Batxilergo edo lanbide heziketa osoa

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Egungo gizartean estereotipo eta rolek eragin handia dute jendearen bizimodu eta jokabideetan. Ezaugarri jakin batzuetan “enkajatu behar” horrek ezinegon eta frustrazio handia eragiten du, zer esanik ez gazteen artean. Presio horrek, banakoen ongizatean nahiz gizarte osoaren “osasunean” eragiten du. Onartutzat hartu eta begi onez ikusten ditugun hainbat ikuspegi ez dira aproposak eta hauei buelta emateak onura asko ekarriko lizkiguke.

Antzeko zerbait pasatzen zaigu ingurunearekin ere. Guk “naturaltzat” ditugun paisaia asko erabat humanizatuta daude eta ekosistema naturalei dagokienean gabezia sakonak dituzte. Gurean ekosistema zabalduenak zuhaitziak dira (baso eta zuhaitz

Naturan hezten

landaketak). Hauek orokorrean egitura oso homogeneoak dituzte eta hainbat prozesu eta elementuetan dituzten gabeziek pobretzen dituzte.

Baso naturalak behatuz, gizarte “natural” baten hainbat ezaugarri identifikatzeak bi dimentsioak hobeto ulertzen lagundu diezaguke.

— ARAZOA

Gaur egungo gizartean pisu handia duten estereotipo eta uste faltsu ugari ikutzen gaituzte maiz, kolektibo nahiz banako gisa dugun balioa itzaltzeraino: “perfektuak” izan, estereotipo jakin batzuetan sartu edota rol jakin batzuetan enkajatu beharra, adibidez. Baina bada “jende naturala” edota gauzak “naturaltasunez” hartzearen aldarria. Baina, zer da “naturala”?

Gurean naturak berez ematen duena basoa da, batez ere. Eta basoak gizarte “naturalagoak” sortzeko pistak emango balizkigu?

Zuhaitz landaketa
ingurune antropizatua



Basoa
ekosistema naturala



Eta gizartea?



XEDEA

Baso natural baten ezaugarriak behatu eta hauen funtzioak ulertzen saiatuz, honek gizartean izan ditzaken analogiak identifikatzea. Basoen konplexutasunetik abiatuz, gizarte mailako aniztasunaren aberastasuna ulertzeko hausnarketak egitea.

HELBURUAK

- Baso naturalen ezaugarriak behatzea eta identifikatzea: espezie eta adin ezberdinetako zuhaitzak, zuhaitz zaharren presentzia, egur hila, egitura eta banaketa heterogeneoa, etab.
- Baso ekosistemen konplexutasunaz ohartzea. Bertan dauden elementu, bizidun eta prozesu anitzen arteko harremanen existentzia eta garrantziaz jabetzea.
- Gure lurraldeko zuhaitzi gehienak eremu antropizatuak direla konturatzea: gizakiak bertan egindako kudeaketaren ondorioz (pinu landaketak, bakanketak, eroritako zuhaitzen aprobetxamenduak, etab.) baso naturalek dituzten ezaugarriak galtzea eragin da.
- Baso batera egindako irteera batean identifikatutako ezaugarrietatik abiatuz gizartearen ikuspegitik zer iradokitzen digun hausnartzea.
- Gizartea osatzen dugun pertsonon aniztasunaz eta honen balioaz jabetu eta honen aberastasunaz ohartzea.
- Nork bere burua ezagutzeko, ulertzeko eta onartzeko eta gainerako pertsonak eta haien aniztasuna ezagutzeko, ulertzeko eta onartzeko interesa piztea.
- Gizartean ontzat ematen diren zenbait azalpen eta onarpenen aurrean (itxurazko kausalitateak, topikoak, estereotipoak, ohiko rolak, etab.) jarrera kritikoa garatzea.

ATAZA

Baso eremu batean aurkitu daitezken elementu, bizidun nahiz prozesuen ezaugarriak identifikatuz, horien eta gizarteko aspektu ezberdinen arteko analogiak identifikatzeko hausnarketak egin eta adieraztea.

JARRAIBIDEAK

Datozen puntuetan, jarduera hau garatzeko jarraibide orokor batzuk markatzen dira:

- Behaketa lan hauek egiteko interesgarria izan daiteken **baso bat identifikatzea**. Ezaugarri hauek izatea komeniko da:
 - Baso eremu bat izatea eta ez zuhaitz landaketa bat. Izan ere, azken hauen egitura homogeneoa (espezie berdina, adin berdina, forma eta distantzia berdina...) ez baita "benetako" gizartearen isla aproposa izango.
 - Espezie, forma, adin, elementu... aniztasuna duen eremu bat izatea.
 - Behaketa eta ondorengo talde-hausnarketarako leku eroso eta atsegina izatea.
- **Komenigarria** izan daiteke, lanketa hau egin aurretik, biologiaren ikuspegitik **basoko ekosistemen inguruko ezagutza orokorra** lantzea (agian bi ikasgaien arteko lanketa koordinatu daiteke).
 - Baso ekosistemetan bertako egituraren konplexutasunaren baitan egongo da honen "osasuna".
 - Espezie desberdinak, zuhaitz zaharrak, egur hila, egitura heterogeneoa... giltzarriak dira prozesu ekologiko osoen bermea izateko, hau da, basoa eta bertako bizidunak "osasuntsu" egoteko.
 - Elementu eta bizidun anitzen arteko milaka prozesu eta harremanek osatzen dute baso ekosistema. Horiek guztiek beren ezaugarri propioak dituzte eta, ondorioz, funtzio jakin batzuk betetzen dituzte ekosistema horretan.
 - **Aniztasunak aberasten du** basoa.
 - Bereziki interesgarria da, zuhaitzek onddoen mizelioaren bidez trukatzeko dituzten seinaleen bidez elkarrekin komunikatzeko eta elikagaiak elkarbanatzeko duten gaitasuna (sinbiosia).
 - [Intereseko bideoa](#)

Naturan hezten

- Bestetik, egur hila, zenbaitek “alferrik galtzen” ari den baliabide material gisa ikusten badute ere, basoko bioaniztasunarentzako oinarrizko elementua da.
- Basora irteera egiten den egunean, hasieran **denbora utzi** ikasleei basoan paseatu eta **behaketa** lanak eginez, norbere (edo taldeko) **hausnarketa** eta eztabaidak **abiarazteko**.
- Bakarkako edota taldekako behaketa-hausnarketa lanerako tarte bat utzi ondoren, guztiok **borobilean eseri eta sortutako ideiak komunikatu eta komentatu**.
- Egindako lanketa horretatik, gure **gizartea** nahiz gure sinesmen eta jokabideak **hobetzeko proposamenak** egin.

Hausnarketa adibideak:

Basoan ezaugarri oso desberdinetako zuhaitzak daude (espezie ezberdinetakoak, forma oso anitzetakoak, batzuk zuzenak eta altuak, beste batzuk forma bihurri eta okerrekin, zenbaitek hildako adarrak edota usteltzen ari diren pusketak dituzte, etab.), eta hauetako bakoitzak bere balioa du ekosistemaren ikuspegitik (funtzio jakin batzuk betetzen ditu). Gizartean ere pertsona ugari gaude, baina bakoitzak bere ezaugarriak ditu (fisiko nahiz psikikoak) eta gizartean modu ezberdinetan aportatzen dugu eta aniztasun horrek orekatzen eta aberasten gaitu kolektibo gisa.

Hainbat pertsonari egur hila edota estandar estetiko-produktiboekin bat egiten ez duten zuhaitzak ikusteak sentsazio negatiboak sortzen dizkie (alferrik galtzen ari den baliabide bat, itsusia, zikina...), baina oso garrantzitsuak dira basoko prozesu naturaletan. Askotan antzerako uste desegokiak izaten ditugu giza-dimentsioari dagokionean eta desiragarriak iruditzen ez zaizkigun ezaugarri batzuk zigortzen ditugu, “naturaltasunari” bizkarra emanda eta sarritan norbere izaera propioa ukatuz.

Basoko zuhaitz zaharrenek pisu berezia dute ekosisteman: hainbat bizidunen “etxe” bihurtzen dira, inguruko hainbat zuhaitz “zaintzen” dituzte (goiko bideoan ikus daitekeen moduan), etab. Gizartean, lagun artean edota familian ere baditugu horrelako pertsona bereziak, inguruari babes eta ongizate hori proiektatzen diotenak.

Basoetan bizidun eta elementu ugari daude, elkarren arteko etengabeko hartuemanetan bizi dira. Elkarbizitzaren eta etengabeko egokitze prozesu baten adibide garbia.